




# ESTADÍSTIKA

## Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturan

### Euskal Autonomia Erkidegoa 2008



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Eusko Jaurlaritzza

Vitoria-Gasteiz, 2011

# Aurkibidea

## **Aurkezpena** **3**

<b>1.</b>	<b>AZTERLANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA</b>	<b>4</b>
1.1.	Helburuak	4
1.2.	Fitxa teknikoa	5
1.3.	Azterlanaren behaketa-eremua	5
1.4.	Aztertutako kontzeptuak	6
1.5.	Gastua kontsolidatzeko prozesua	9

<b>2.</b>	<b>EAEko ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KULTURAN EGINDAKO GASTUA</b>	<b>11</b>
2.1.	EAEko Administrazio Publikoen aurrekontuetan kultura gastuak duen garrantzi erlatiboa	11
2.2.	Bestelako sail eta arloek kulturaren egindako gastua	13
2.3.	Kulturaren egindako gastua kapitulu ekonomikoaren eta entitate motaren arabera	14
2.4.	Gastua kultura-esparruaren eta entitate motaren arabera	19

## **3.** **KULTURA TRANSFERENTZIEN FLUXUAK EAEan** **28**

<b>4.</b>	<b>GASTU KONTOLIDATUA EAEan</b>	<b>31</b>
4.1.	Jatorrian kontsolidatzeko prozesuaren emaitzak	32
4.2.	Helmugan kontsolidatzeko prozesuaren emaitzak	35
4.2.1.	Gastu kontsolidatua kultura-esparruaren arabera	35
4.2.2.	Gastu kontsolidatua kapitulu ekonomikoaren arabera	39
4.2.3.	Gastu kontsolidatua kapitulu ekonomikoaren eta kultura-esparruaren arabera	40

## **5.** **ONDORIOAK** **42**

### **Eranskinak** **47**

<b>I.</b>	Azterlanean parte hartu duten Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak, Lurralde Historiakoaren arabera	47
<b>II.</b>	Azterlanean parte hartu duten Udalak, udal-neurriaren arabera	48
<b>III.</b>	Kultura-esparruen araberrako emaitzen laburpena	50

### **Irudien aurkibidea** **62**

## AURKEZPENA

Kulturaren Euskal Behatokiaren helburuetako bat kulturaren gaineko begirada estrategikoan laguntza ematean datza, egoeraz haratagoko ikuspegia emango duen informazio- eta azterketa-sistema baten bitartez. Xede horrekin, kulturaren egindako finantzaketari eta gastu publikoari buruzko azterketa-ildo bati hasiera eman zaio, kultura-sektorearen beraren existentzian Administrazio Publikoak duen presentzia eta izaera estrategikoa neurtzeko tresna bati, hain zuzen ere.

Aztertu beharreko agenteen konpromisoa eskatzen du ikerlan estatistiko orok. Emaitza fidagarriak eta adierazgarriak lortzeko ezinbesteko baldintza da hori. EAEko Administrazio Publikoak eragiketaren erantzunean ez ezik hura diseinatzeko prozesuan inplika daitezkeen lortzeko xedea bereziki zaindu du Behatokiak.

2009an, kulturaren egindako finantzaketaren eta gastu publikoaren azterketan ibilbide luzea duten hainbat entitatek sustatutako antzeko beste hainbat eragiketa erreferentzia gisa hartu zituen azterlan pilotu bat egin zen<sup>1</sup>, eta horren ondoren, lan-talde bat antolatu zen aztertu beharreko entitateetako ordezkariekin. Hainbat administrazio-mailatako, udal-neurritako eta antolakuntza-eredutako ordezkariak osatua izan zen adierazitako talde hori. Horretaz gain, kulturaren eta ekonomiaren alorretako jakintzak konbinatu ziren, besteak beste, Behatokiak egindako proposamenaren bideragarritasuna balioesteko eta hobetzeko. Lan horren emaitzak azterlanean sartutako entitate guztietara igorri ziren.

Horixe izan zen estatistika abiarazi baino lehenago batera egindako lan-prozesua. Eskatutako informazioaren asmoa eta konplexutasuna kontuan hartuz (aztertutako entitateen hainbat sail eta arloren parte-hartzea eskatu du askotan informazio horrek), eskertzekoa da azterlanaren barnean hartutako entitate guzti-guztien parte-hartzea.

Azterlanaren balioa eta ekarpen nagusia EAEn kulturaren egiten den gastu publikoaren ikuskera orokor eta integratua eskaintzean datza. Haatik, komenigarria da adieraztea lehen edizio honek miaketa-izaera duela eta bilakaerak aztertzea eta joerak sumatzea ahalbidetuko duen denbora-segida egonkor bat edukitzean aberastu egingo dela. Halaber, nabarmentzekoa da txosten honek azterlanaren emaitza nagusien deskribapen-azterketa bat ere baduela. Azterlan honek ematen duen informazioa ez da txosten honekin batera agortzen, beste hainbat azterlan espezifikoetarako atea irekitzen baitu, hala nola lurralde historikoen araberakoak, sektoreen araberakoak edota antolakuntza-ereduen araberakoak, besteak beste.

Laburbilduz, aurkeztutako emaitzak EAEko Administrazio Publikoaren baterako ahaleginaren emaitza direla nabarmendu behar da, eta hori dela-eta, guztientzat estrategikoa den lan honetan inplikatu izanagatik eskerrak eman nahi dizkie Kulturaren Euskal Behatokiak.

<sup>1</sup> Espainiako Gobernuak Kultura Ministerioak sustatutako *Estadística de financiación y gasto público en cultura* eta Kataluniako Generalitatearen *Cultura i Mitjans de Comunicació Departamentuaren Estadística de despesa local en cultura de Catalunya*.

## 1. AZTERLANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

### 1.1. HELBURUAK

Kulturaren Euskal Behatokiaren helburuen esparruan, kulturaren egindako gastu publikoa jakitea ezinbesteko tresna dugu, kulturaren administrazioek beren politikak orienta ditzaten, sektoreek estrategiak bideratzeko informazioa izan dezaten, eta herritarrek funts publikoen helmuga zein den jakin dezaten.

Kulturaren egindako finantzaketaren eta gastu publikoaren Estatistikaren helburu orokorra zera da, EAEko Administrazio Publiko nagusiak kulturaren egiten ari diren ekarpen ekonomikoen eta inbertsioaren muntaren panoramika eskaintzea. Zehazkiago, honako hauek:

- EAEko entitate publiko desberdinek kulturaren egiten duten gastua zein den jakitea.
- Kulturaren egindako gastu publikoaren izaera ekonomikoa aztertzea.
- Kulturaren egindako gastu publikoaren banaketa kultura-esparruen eta -sektoreen arabera aztertzea.
- EAEn kulturaren egiten den gastu publikoaren ikuspegi orokorra, osoa eta hobetua ematea.
- Euskal Administrazio Publikoek komunikabideetan egiten duten gastuari buruzko informazioa biltzea.
- Kulturako enplegu publikoaren lehen hurbilketa izatea.

## 1.2. FITXA TEKNIKOA

<b>Eragiketaren izena</b>
Finantzaketa eta gastu publikoa kulturaren EAEn.
<b>Eragiketaren estatusa</b>
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak egina eta Eustatek ofizialdua.
<b>Aldizkakotasuna</b>
Bi urtean behingoa.
<b>Eragiketa mota</b>
Zentsu-izaerakoa: 5.000 biztanletik gorako udalak; Erakunde Autonomoak, Sozietate Publikoak eta 1.3 idatz-zatian bildutako baldintzak betetzen dituzten Fundazioak. Lagin-izaerakoa: 5.000 biztanletik beherako udalak.
<b>Informazioa biltzea</b>
Fitxa egituratuaren, laguntza teknikoaren eta lankidetzaren bitartez informazioa zuzenean biltzeko prozesua.
<b>Informazioa biltzeko aldia</b>
2010eko urtarril-maiatza.
<b>Informazioaren erreferentzia-urtea</b>
2008.
<b>Landa-lana egiteko ardura izan duen enpresa</b>
Siadeco.
<b>Diseinua kontrastatzeko eta balioesteko prozesua</b>
Administrazio Publikoetako arduradunak, azterlana abiarazi baino lehenagoko hainbat lan-taldetan parte hartu dutenak.

## 1.3. AZTERLANAREN BEHAKETA-EREMUA

Estatistika horren honako azterketa oinarriak hartu ditu barnean:

- Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalei egindako zentsu-izaerako landa-lana.
- 5.000 biztanletik beherako udalerrietan Toki Administrazioen lagin batekin egindako landa-lana. Kasu horretan, entitateen guztizko kopuruaren % 41,8 izan da estaldura, hots, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako biztanleen % 44,2.
- Honako hauei egindako landa-lana: batetik, Erakunde Autonomoei, bestetik, EAEko administrazio publiko batek edo gehiagok % 100ean partaidetutako Sozietate Publikoei,

eta azkenik, kultura-esparrukoak izanik 2008an euskal administrazioetatik zetozen diru-sarrerak —transferentzia arrunten eta/edo kapital-transferentzien kontzeptukoak eta 500.000 eurotik gorakoak— izan zituzten Fundazio Publikoei.

Ondorengo irudian, azterketaren irismena xehatzen da, kontsultatutako entitate mota desberdinen arabera.

### 1. irudia. Aztergai den unibertsoa eta laginaren irismen-ratioak.

	Unibertsoa		Lagina		Laginaren irismena	
	Entitate kop.	Biztanleak	Entitate kop.	Biztanleak	Entitateen %-a	Biztanleriaren %-a
<b>Udalak</b>	251	2.172.175	144	2.039.110	57,4	93,9
< 5.000 biztanle	184	238.458	77	105.393	41,8	44,2
5.000-20.000 biztanle	49	527.769	49	527.769	100,0	100,0
> 20.000 biztanle	18	1.405.948	18	1.405.948	100,0	100,0
<b>Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak</b>	44	-	44	-	100,0	-
<b>Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza</b>	4	2.172.175	4	2.172.175	100,0	100,0
<b>GUZTIRA</b>	299	-	192	-	64,2	-

## 1.4. AZTERTUTAKO KONTZEPTUAK

Azterlanak kultura-sailek eta -arloek kudeatutako aurrekontuarekin lotutako begirada espezifikoa gainditu du, eta horrenbestez, sail horiek kudeatzen ez dituzten baina azterlan honetan kultura-gastutzat hartzen diren aurrekontu-partidak ere biltzen ditu<sup>1</sup>. Informazio horretatik abiatuz, honako kontzeptu hauen arabera sailkatu da gastua:

### Kultura-helmuga: esparruen deskribapena

#### **Ondarea eta arkeologia**

Arkitektura- eta arkeologia-ondarea kontserbatzea, zaharberritzea, birgaitzea, aztertzea, babestea eta hedatzea. Dokumentu-ondarea eta bibliografia-ondarea ez dira atal honen barnean hartu, ezta museoen esparruaren zati den ondarea ere.

<sup>1</sup> Horrela, esate baterako, entitate batean Turismo Sailari —eta ez Kultura Sailari— esleitutako aurrekontu-partida bat izanez gero, eta betiere aurrekontu-partida hori Museo bateko berezko langileei egin beharreko ordainketei eustearekin lotuta badago (I. kapitulua), aurrekontu-partida hori I. kapituluaren barruan eta Museoen atalaren barruan jaso da.

### **Liburutegiak**

Liburutegietako funtsak mantentzea eta erostea, baita horietatik sustatzen diren jardueri dagokienez ere. Era berean, bibliografia-ondarea katalogatzeko, babesteko eta zaharberritzeko faseak ere atal honen barnean hartu dira, baita liburutegien esparru fisiko edo juridikoaren barruan gauzatzen ez diren kasuetan ere.

### **Artxiboak**

Dokumentu-artxiboak eta -ondarea sortzea, mantentzea, katalogatzea, hedatzea, eta horiekin lotutako jarduerak egitea eta funtsak erostea.

### **Museoak**

Museoak sortzea, mantentzea eta hedatzea eta horiekin lotutako funtsak erostea.

### **Antzerkia eta dantza**

Antzerki- eta dantza-ikuskizunak; arte eszenikoen esparru profesionaleko sorkuntzan, ekoizpenean eta hedapenean laguntzea. Era berean, zirkua eta beste hainbat jarduera eszeniko eta parantzerki-jarduera ere atal honen barnean hartzen dira, baina opera, berriz, ez.

### **Musika**

Zuzeneko musika-emanaldiak, ikuskizun lirikoak eta industria fonografikoa (sorkuntzan, ekoizpenean nahiz hedapenean laguntzea). Arautu gabeko musika-eskolen jarduera ere atal honen barnean jaso da.

### **Ikusizko-arteak**

Pintura- eta eskultura-erakusketak, eta baita beste hainbat ikusizko-artenak ere; sorkuntzan, ekoizpenean eta hedapenean laguntzea.

### **Zinema eta ikus-entzunezkoak**

Lan zinematografikoa eta ikus-entzunezkoa: ikus-entzunezkoak sortzeko, ekoizteko eta hedatzeko laguntzak.

### **Literatura eta edizioa**

Argitaratze- eta literatura-sustapena; sorkuntzan, ekoizpenean eta hedapenean laguntzea.

### **Kultura-ekintza**

Espezializatu gabeko jaialdiak, ekipamendu komunitario eta soziokulturaletatik bultzatutako programak, balio anitzeko kultura-ekipamenduak eta -zerbitzuak —zentro zibikoak, kultura-etxeak, eta abar— amateurismoa eta kultura-partaidetza hartzen dira atal honen barnean.

### **Bertsolaritza**

Egitura eta zerbitzu egonkorak mantentzeko eta babesteko gastua hartzen da atal honen barnean (bertso-eskolak, elkarteak, eta abar babestea).

### **Jaiak eta herri-kultura**

Udalerrietako herri-jaiak eta zaindarien jaiak ospatzeko jarduerak eta emanaldiak, eta baita herri-kulturarekin eta kultura tradizionalarekin lotutako emanaldiak eta jarduerak ere. Jaien barnean hartutako gastuen multzoa kultura-gastutzat hartu da.

### **Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak**

Ezein kultura-azpisektore zehatzetan egotzi ezin diren gastu orokorrak —kultura-arloaren funtzionamendukoak— hartzen dira atal honen barnean (esate baterako, kultura-teknikari baten pertsonal gastuak). Kultura-gastu espezifikoak egozteko kalkulua egin da zerbitzu horiek kultura-alorretik kanpoko beste zenbait esparru eta sektore —esaterako, kirol-, gazteria-, edota euskara-sektoreak— ere kudeatu dituzten kasuan...

### **Komunikabideak**

Komunikabide publikoei, pribatuei eta sozialei laguntzea eta horiek finantzatzea hartzen da atal honen barnean. Kulturaren azpisektore gehigarritzat jo da, eta honenbestez, ez da hartu guztizko kultura-gastuari buruzko datuen barnean.

### **Gastuaren izaera ekonomikoa: aztertutako partidak**

Azterketa honetarako, aurrekontu publikoetako gastuaren sailkapen ekonomikoa erabili da, honako epigrafe hauek biltzen dituenak:

#### **Gastu arruntak:**

- I. kapitulua. Langile gastuak: soldatak eta ordainsariak biltzen ditu, nagusiak ordaindu beharreko kuotez, prestazioez eta gastu sozialez gain.
- II. kapitulua. Ondasunetan eta zerbitzuetan egindako gastuak: zenbait gastu arrunt biltzen dituzte, hala nola erosketen kudeaketa, zerbitzuen azpikontratazioa, ekipoak konpontzeko gastuak, eta abar.
- III. kapitulua. Finantza-gastuak: jaso diren edozein motatako zorren, gordailuen eta finantzen interesen ondoriozko gastuak.

- IV. kapitulua. Transferentzia arruntak: onuradunen kontrapartidarik gabeko eragiketa arruntak finantzatzeko bestelako sektore publiko nahiz pribatuetara bideratutako kredituak biltzen dituzte.

### **Kapital-gastuak:**

- VI. kapitulua. Inbertsio errealak: kultura-azpiegitura berrietarako, arte-lanetarako, ekipamendu-berritzeetarako, eta abarretarako inbertsio iraunkorrak egiteko behar diren zuzkidurak.
- VII. kapitulua. Kapital-transferentziak: inbertsioak finantzatzeko zuzeneko kontraprestaziorik gabeko ordainketak.

### **Finantza-aktiboak eta -pasiboak:**

- VIII. kapitulua. Finantza-aktiboak: finantza-aktiboak erosteko eta gordailuak eta fidantzak finkatzeko kredituak.
- IX. kapitulua. Finantza-pasiboak: zorrak amortizatzeke eta hirugarrenek bateratutako gordailuak eta fidantzak itzultzeke kredituak.

## **1.5. GASTUA KONSOLIDATZEKO PROZESUA**

Azterlan honetan bildutako informazioa aztertutako entitate publikoek 2008an obligazio aitortuen fasean likidatutako aurrekontuetan oinarrituz lortu da<sup>1</sup>. Lehen informazio-maila horri kultura-gastu deritzo, eta azterketa-unibertsoaren zati diren 299 entitateek kulturara bideratu zuten gastu «gordina» zein den jakiteko aukera ematen digu.

Informazio horretatik abiatuz, gastua konsolidatzeko prozesua burutu da; kulturaren egindako gastu publikoaren ikuspegi oso eta orokorra eskaintzean datza prozesu horren xedea, erakunde bakar bat izango balitz bezala. Garbiketa-prozesu horren bitartez, entitate finantzatzaileen eta onuradunen arteko transferentzia ekonomikoen kontabilitate bikoitza neutralizatzen da, kulturaren

<sup>1</sup> Gastua egikaritzeko prozeduraren hirugarren fasea da. Kontabilitateari dagokionez, eska daitezkeen kredituak kontuetan erregistratzeko eragiketa gisa definitzen da. Xedapenaren helburu den prestazioa edo adostutako baldintzen betearazpena behar bezala egiaztatzen izana ondorioz.

egindako gastu «garbia» lortzeko. Entitateen arteko partida-fluxuak identifikatzeko eta xehetasunez aztertzeko lana eskatzen du horrek, lortu nahi den xedearen arabera partida horiei eutsi ahal izateko, edo bestela, horiek kendu ahal izateko.

Kontsolidazio-prozesurako, beraz, transferentziak identifikatu behar izan dira, batetik, administrazio-maila desberdinen arteko transferentziak —Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen artekoak—, eta bestetik, entitateen eta horien mendeko erakundeen artekoak (adibidez, udal bat eta horren erakunde autonomoak).

Identifikazio horretatik abiatuz, kontsolidatzeko bi bideri jarraitu zaie: batetik, partiden fluxuaren jatorria bilatzen duenari, eta bestetik, haren helmuga bilatzen duenari. Horrela, jatorriko entitate finantzatzaileen —Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien eta Udalen— errealitatea ezagutzea komeni denean, partidak jatorrian mantentzen dira, eta helmugako erakundeei kentzen zaizkie.

Haatik, helburua gastuaren kultura-helmuga ezagutzea bada, gastu horren egikarizetik gertuen dauden entitateetan mantentzen dira partidak, hots, Udaletan, Erakunde Autonomoetan eta Sozietate Publikoetan, jatorrizko iturritik kenduz.

## 2. EAEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KULTURAN EGINDAKO GASTUA

Kapitulu honetan, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek 2008an kulturaren egindako gastuaren azterketa aurkezten da, eta baita Erakunde Autonomoek eta horien mendeko Sozietate Publikoek egindakoa ere. Kapitulu honetan bildutako informazioa aipatutako ekitaldian entitate horiek likidatutako aurrekontuei buruzkoa da.


Lehenik eta behin, likidatutako aurrekontuak batzearen ondorioz guztizkoaren zenbatekoa biltzen da (EAEko entitate publikoek kulturaren egindako «gastu publiko gordina» ezagutzea ahalbidetzen du horrek), eta baita entitate horien guztizko aurrekontuen barruan gastu horrek duen garrantzi erlatiboa ere, hots, «kultura ahalegin» deritzona.

Jarraian, kulturaren egindako gastuaren profila aztertuko dugu, haren izaera ekonomikoa eta kultura-helmuga aintzat hartuz.

### 2.1. EAEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN AURREKONTUETAN KULTURA GASTUAK DUEN GARRANTZI ERLATIBOA

2008an, EAEko Administrazio Publiko guztiek kulturaren egin zuten gastua 639,4 milioi euro izan zen. Eusko Jaurlaritzak 57,4 milioi euro erregistratu zituen kultura gastu gisa, hiru Foru Aldundiek, berriz, 104,7 milioi euro, eta Udalek, berriz, 301,4 milioi euro guztira. Erakunde Autonomoek eta Sozietate Publikoek kulturaren egindako gastua, bestalde, 175,8 milioi euroko gorakoa izan zen.

**2. irudia.** Kulturaren egindako gastua, entitate motaren arabera (eurotan eta %-ak). 2008



Kulturaren egindako gastuaren munta horiek entitate bakoitzaren berezko aurrekontuarekin alderatzen badira, hurrengo orrialdean jasotako 3. irudia sortzen zaigu; irudi horretan, kulturaren egindako gastuak aztertutako entitate mota bakoitzean duen garrantzi erlatiboa askotarikoa dela egiazta dezakegu. Horrela, Udalek beren guztizko aurrekontuen % 9,3 bideratu zuten kultura-ondasunetara, -jardueretara, -azpiegituretara eta -zerbitzuetara. Udalaz gaindiko entitateen kasuan, esate baterako, Eusko Jaurlaritza eta Aldundiak, kulturak duen garrantzia % 0,6ra eta % 3,6ra jaisten da, hurrenez hurren.

Kultura gastuaren garrantzi erlatiboarekin lotutako emaitza horiek xehetasun handiagoz aztertzeko, datozen urteetan ezinbestean aztertu beharko da munta horien bilakaera; azterlanaren hurrengo edizioetan aztertu ahal izango dira horiek.

Espainiako Kultura Ministerioak<sup>1</sup> emandako datuen desberdintasun metodologikoak gorabehera, hautatutako datuek kulturaren egindako gastuaren erakunde-panorama eta kulturako gastuak entitate mota bakoitzaren guztizko aurrekontuen barruan duen garrantzia islatzen laguntzen dute. Horrela, Estatuko Administrazio Orokorra 2008an kulturaren egindako gastua likidatutako guztizko gastuaren % 0,5 izan zen; Administrazio Autonomikoan, ostera, ehuneko hori 1,2 zen, eta Toki Administrazioari gagozkiola, azkenik, 5,1 (Udalak eta Aldundiak, Kabildoa eta Kontseiluak).

**3. irudia.** Guztizko aurrekontuei dagokienez, kulturaren egindako gastua, entitate motaren arabera (euroak eta %-ak). 2008

Entitate mota	Kulturaren egindako gastua	Guztizko aurrekontua Entitate bakoitzeko (€)	Kultura-aurrekontua guztizkoaren barruan (%)
<b>Eusko Jaurlaritza</b>	57.431.792	9.317.300.321	0,6
<b>Foru Aldundiak</b>	104.678.140	2.911.976.568	3,6
<b>Udalak</b>	301.425.557	3.245.391.087	9,3

Edonola ere, zera nabarmendu behar da, kulturaren egindako gastuari —aurreko irudian jasotakoari— komunikabideekin lotutako gastua gehitzen badiogu, garrantzi erlatiboa nabarmen handitzen da Eusko Jaurlaritzaren kasuan, guztira 200,5 miloi euroko zenbatekora iritsiz, entitate horren aurrekontuaren % 2,1, hain zuzen ere.

<sup>1</sup> Komenigarria da kontuan hartzea Ministerioaren *Estadística de Financiación y Gasto público* estatistikak eta Kulturaren Euskal Behatokiak egindakoak desberdintasunak dituztela behaketa-esparruari eta metodologiari dagokienez: mendeko erakunde publikoen tratamendua, hizkuntza-politika txertatzea, eta Toki Administrazioen kasuan, bi azpieginkizun txertatzea (Kulturaren sustapena eta hedapena, eta Arkeologia eta ondare historiko eta artistikoaren babesa). Txosten hau egin zenean argitaratuta zeuden Ministerioaren azken datuak honako webgune honetan kontsulta daitezke [http://www.mcu.es/estadisticas/docs/capitulos\\_graficos/AEC2010/c\\_financiacion3-2010.pdf](http://www.mcu.es/estadisticas/docs/capitulos_graficos/AEC2010/c_financiacion3-2010.pdf).

Udalak beren neurriaren arabera aztertuz gero, zera egiazta dezakegu, horrelako entitateek kulturaren egin ohi duten gastuak aurrekontu orokorretan duen garrantzi erlatiboa berdina dela aztertutako geruza guztietan, zenbait ñabardura gorabehera. Horrela, Udal txikiak nabarmentzen dira, guztizko aurrekontuen % 10etik gorakoa izan baitzen hauek kultura bideratutako gastua.

**4. irudia.** Udalen guztizko aurrekontuei dagokienez, kulturaren egindako gastua, udalerriaren neurriaren arabera (euroak eta %-ak). 2008


Udalerriaren neurria	Kulturaren egindako gastua	Guztizko aurrekontua entitate bakoitzeko (€)	Kultura-aurrekontua guztizkoaren barruan (%)
< 5.000 biztanle	44.229.290	433.724.720	10,2
5.000-20.000 biztanle	75.071.239	770.578.112	9,7
> 20.000 biztanle	60.985.193	790.448.407	7,7
Hiriburuak	121.139.835	1.250.639.848	9,7
Udalak GUZTIRA	301.425.557	3.245.391.087	9,3

## 2.2. BESTELAKO SAIL ETA ARLOEK KULTURAREN EGINDAKO GASTUA

Kulturaren egindako gastua neurtzeko EAEko Administrazio Publikoen kultura-sailek kudeatutako kulturako aurrekontu-partidak ez ezik, beste hainbat sailek kudeatutako partidak ere hartu behar dira kontuan.


5. irudian ikus dezakegunez, Udalen kasuan, kulturaren egindako gastuaren zatirik handiena kultura-sailetan eta -arloetan kudeatzen bada ere, kultura-alarrekoak ez diren sailek egindako ekarpena nabarmena da (kulturaren egindako gastuaren % 13,4 da ekarpen hori). Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, kultura-alarrekoak ez diren sailek kulturaren egindako gastuaren garrantzi erlatiboa apur bat txikiagoa da (% 1,1 eta % 1,6, hurrenez hurren).

**5. irudia.** Kulturaren egindako gastua gastu hori egin duten sailei dagokienez, entitate motaren arabera (euroak eta %-ak). 2008



Kulturaren egindako gastuan bestelako udal-arloek duten partaidetza bereziki esanguratsua da hiriburuen kasuan (% 23,0); horien kasuan, zeharkako zenbait arlok, esate baterako, herritarren partaidetzakoak edota gazteria-arloak, besteak beste, esku-hartze garrantzitsuak jasotzen dituzte kulturaren ere.

**6. irudia.** Kulturaren egindako udal-gastua, gastu hori egin duten sailei dagokienez, udalerriaren neurriari dagokionez (euroak eta %-ak). 2008



**2.3. KULTURAREN EGINDAKO GASTUA KAPITULU EKONOMIKOAREN ETA ENTITATE MOTAREN ARABERA**

Entitate bakoitzak kulturaren egindako gastuaren banaketak —kapitulu ekonomikoaren arabekoak—, bestalde, horien baliabide ekonomikoen zuzeneko finantzatzaile edo egilearen profila irudikatzen du, transferentziekin lotutako kapituluak (IV . eta VII. kapituluak) edota gastuaren zuzeneko egikaritzearen kudeaketan eragina dutenak nagusi ote diren kontuan hartuz (I., II. eta VI. kapituluak).

**7. irudia.** Kulturaren egindako gastua kapitulu ekonomikoaren eta entitate motaren arabera (euroak eta %-ak). 2008

Kapitulu ekonomikoa	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak		Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak	
	€	%	€	%	€	%	€	%
<b>I. kap.:</b> Langile gastuak	2.883.270	5,0	14.807.581	14,1	48.758.117	16,2	63.357.322	36,0
<b>II. kap.:</b> Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	5.675.049	9,9	13.813.178	13,2	80.321.407	26,6	98.018.205	55,7
<b>III. kap.:</b> Finantza-gastuak	0	0,0	120	0,0	127.824	0,0	827.364	0,5
<b>IV. kap.:</b> transferentzia arruntak	30.398.317	52,9	35.395.313	33,8	100.531.537	33,4	1.902.847	1,1
<b>VI. kap.:</b> Inbertsio errealak	1.508.434	2,6	20.238.750	19,3	67.151.950	22,3	11.680.452	6,6
<b>VII. kap.:</b> Kapital-transferentziak	12.839.710	22,4	17.207.794	16,4	4.391.420	1,5	11.944	0,0
<b>VIII. kap.:</b> Finantza-aktiboak	4.127.012	7,2	3.215.404	3,1	6.000	0,0	44.041	0,0
<b>IX. kap.:</b> Finantza-pasiboak	0	0,0	0	0,0	137.302	0,0	0	0,0
<b>GUZTIRA</b>	57.431.792	100,0	104.678.140	100,0	301.425.557	100,0	175.842.175	100,0

Laburbilduz, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien profila beste erakunde batzuen finantzatzaile gisakoa da erabat, Udalek, ostera, profil mistoa dute, aurrekoen funtsen jasotzaile eta aldi berean, Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoen finantzatzaile garrantzitsu, hain zuzen ere, eta arestian aipatutakoek, azkenik, sistemaren transferentzien jasotzaile nagusi gisako profila dute.


Eusko Jaurlaritzaren eginkizuna EAEko bestelako entitate publiko eta pribatuen finantzatzaile nagusi gisakoa da, eta horiek, ondoren, beren eskumen- eta kudeaketa-esparru desberdinetan egiten dute kulturako gastua zuzenean. 2008an, Eusko Jaurlaritzak 43,2 milioi euro bideratu zituen transferentzietara, eta zehazki, kulturaren egindako gastuaren % 52,9 transferentzia arruntetara; kulturaren egindako gastuaren % 22,4, berriz, kapital-transferentzietarako egin zen.

Ondorioz, gastua zuzenean egitera zuzendutako kapitulu ekonomikoetara baliabide ekonomikoaren bolumen txikiagoa bideratu zuen, eta honenbestez:

- Langile gastua (I. kapitulua) 2,9 milioi euro da, hots, Eusko Jaurlaritzak kulturaren egindako gastuaren % 5,0.
- Ondasunetako eta zerbitzuetako gastu arruntetara (II. kapitulua) 5,7 milioi euro bideratu ziren, hau da, kulturaren egindako gastuaren % 9,9.

— Inbertsio errealetera (VI. kapitulua), ostera, 1,5 milioi euro zuzendu ziren, Eusko Jaurlaritzak kulturaren egindako gastuaren % 2,6, hain zuzen ere.


### 8. irudia. Eusko Jaurlaritzak kulturaren egindako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera (euroak eta %-ak). 2008



Foru Aldundiek ere, bestalde, bakoitzari dagokion lurralde historikoko kultura-entitate publiko eta pribatuen finantzatzaile nagusi gisako profila dute. Horrela, 2008an 52,6 milioi euro bideratu zituzten bakoitzaren lurralde historikoko bestelako entitate publiko eta pribatuetara. Transferentzia arruntak (35,4 milioi euro, IV. kapitulari dagozkionak) eta kapital-transferentziak (17,2 milioi euro, VII. kapitulari dagozkionak), edo beste modu batean esanda, 2008an kulturaren egindako gastuaren bi eurotik bat.

Foru-entitateetan, gastua zuzenean egitera bideratutako partiden garrantzi erlatiboa Eusko Jaurlaritzak izandako munta baino handiagoa izan zen. Honako kapitulu hauetan bildutako partidak ditugu horiek: I. kapitulua (bere langile gastua, Foru Aldundien kasuan gastuaren % 14,1 izatera iritsi zen), II. kapitulua (ondasunetako eta zerbitzuetako gastu arruntak, % 13,2 izatera iritsi zen), eta bereziki, VI. kapitulua (inbertsio errealak egitea, % 19,3ra iritsi zen).


### 9. irudia. Foru Aldundiek kulturaren egindako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera (euroak eta %-ak). 2008



Udalek, aldiz, profil mistoa dute, kulturaren gastua egiteko izaera eta funtsean Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoen gastu arruntak (batez ere) finantzatzeko izaera konbinatuz, hurrengo kapituluaren grafikoki irudikatuko den bezala; hori horrela izanik, bi eginkizun izan zituzten Udalek:


- Udalek, EAEko kultura gastuaren zuzeneko egile gisa, 48,8 milioi euro bideratu zituzten, batetik, bere langile gastura (% 16,2 I. kapituluaren erabilia), eta 80,3 milioi euro, bestetik, ondasunetako eta zerbitzuetako gastu arruntera (% 26,6 II. kapituluaren erabilia). Era berean, oso garrantzitsua da inbertsio errealeko kapituluaren munta, Udalek guztira 67,2 milioi euro bideratu baitzituzten kapitulu horretara (gastuaren % 22,3).
- Udalek, beren mendeko (erabateko mendetasuna edota partziala) Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoen entitate finantzatzaile gisa, 100,5 milioi euro bideratu zituzten entitate horien gastu arruntaren finantzaketara, hau da, kulturaren egindako gastuaren herena. Alabaina, kapital-transferentzien munta (VII. kapituluaren) txikiagoa izan zen: 4,4 milioi euro, hots, erakunde horiek kulturaren egindako gastuaren % 1,5.

#### 10. irudia. Udalek kulturaren egindako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera (euroak eta %-ak). 2008



Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoen kasuan, argi eta garbi nabarmentzen da aurrekontua zuzenean egikaritzearekin lotutako profila dutela. Horrela, 2008an, horrelako entitateek kudeatutako hamar euro bakoitzeko bederatzik bi helmuga izan zituzten, batetik, langile gastua (aurrekontuen I. kapituluaren, 63,4 milioi euro, hau da, mota horretako entitateek egindako gastuaren % 36,0), eta bestetik, ondasunetako eta zerbitzuetako gastu arruntak (II. kapituluaren; 98,0 milioi euro bideratu zituzten kapitulu horretara, mota horretako entitateek egindako gastuaren % 55,7, hain zuzen ere).

**11. irudia.** Erakunde Autonomoek eta Sozietate Publikoek kulturaren egindako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera (euroak eta %-ak). 2008




Azkenik, kulturako enplegu publikoaren muntaren gaineko ikerketarako hurbilketa bat ere jaso du azterlan honek. Horren ildotik, aipatutako I. kapituluaren bitartez sortutako enplegua era sendoan biltzea ahalbidetu du azterlan honek (hurrengo taulan, «berezko enplegu» deitu zaio I. kapitulu horri), eta horretaz gain, gainerako kapitulu ekonomikoaren bitartez sortutako enplegu publikorako lehen hurbilketa ere egin ahal izan da (azpikontratutako enplegua); enplegu publikoa, askotarikoa eta konplexutasun handiagokoa denez gero, sakontasun eta doitasun handiagoarekin jorratu behako da geroagoko edizioetan.

#### EAEEn KULTURA ARLOKO ENPLEGU PUBLIKOARI HURBILKETA

Esan dugunez, aztergai ditugun erakundeetako enplegua kuantifikatzeko informazio-eskaera ere barnean hartu da azterlanean. Horretarako, I. kapituluak (langile propioak zuzenean kontratatzea Administrazio Publikoaren aldetik) zuzenean finantzatutako enpleguaren identifikazioa ez mugatzeko ahalegina egin dugu, langile propioen zuzeneko kontratazioaren edo azpikontratazioen bidez erregistratutako enpleguarekiko hurbilketa ere eginez, beste kapitulu ekonomiko batzuen bitartez (II. kapitulu eta IV. kapitulu).

**12. irudia.** Kultura-enplegu publiko propioa (I. kapituluarekin loturik), entitate motaren arabera (urteko lanpostuak). 2008



2008. urtean, urteko enplegu publiko propioak 2.710 izan ziren; magnitude horren osagarri, beste kapitulu ekonomiko batzuen bidez (batik bat, II. eta IV. kapituluak) kontratatutako enpleguaren estimazioa egin ahal izan dugu eta 2008. urtean 853,8 enplegu lirateke, urte osoko enplegu gisa kontatuz.

Era berean egindako azterlanari esker enplegu publiko propioaren magnitudea kalkulatu ahal izan dugu, lanpostuen lanbide-profilarekin loturiko bi talde handitan, eta hauxe izan da emaitza:

- Kultura-arloko kudeaketa eta jarduerarekin loturiko enplegu propioak (I. kapituluaren bidez finantzatuak): guztira 2.528 enplegu izan ziren 2008an, eta horien artean daude zuzendaritzako postuetan, postu teknikoetan eta administrazioeko postuetan jarduten duten langileak.
- Laguntza emateko eta zeharkako postuekin loturiko enplegu propioak (I. kapituluaren bidez finantzatuak): 182 enplegu izan ziren 2008an, eta eremu horretan sartzen dira garbiketako, mantenu-lanetako, muntaketako eta segurtasuneko langileak.

## 2.4. GASTUA KULTURA-ESPARRUAREN ETA ENTITATE MOTAREN ARABERA

Gastuaren helmugak kultura-esparruaren arabera duen egiturak txosten honen lehen kapituluan aurkeztutako egiturazko planteamenduan eta definizioetan du jatorria; lehen kapituluko definizioek aztertutako kultura-esparru guztien barnean hartutako kontzeptuak xehetasunez biltzen dituzte.

Gastuaren kultura-helburuaren eta aztertutako entitateen arteko azterketa gurutzatuak agerian uzten du entitate horien eskumen-dibertsitatea, horien politikei eta kudeaketa-ereduei dagokienez izan ditzaketen aldeak erakustez gain<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> [Abenduaren 18ko 3/1919 Lege Organikoa, Euskal Herriko Autonomi Estatutuari buruzkoa](#)  
[27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen Arteko Harremanei buruzkoa,](#)  
[7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena,](#)  
[7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa,](#)  
[7/2006 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Museoei buruzkoa.](#)

### 13. irudia. Kulturen egindako gastua, kultura-azpizistemen eta entitate motaren arabera (euroak eta %-ak). 2008


Kultura-azpizistetak	Eusko Jaurlaritzak		Foru Aldundiak		Udalak		Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Ondarea guztira <sup>1</sup>	30.047.767	52,3	70.406.879	67,3	60.758.816	20,2	51.523.207	29,3
Arteak eta industriak guztira <sup>2</sup>	26.236.619	45,7	31.131.223	29,7	163.392.612	54,2	109.619.111	62,3
Jaiak eta herri-kultura	0	0,0	281.023	0,3	37.112.523	12,3	6.077.030	3,5
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	1.147.407	2,0	2.859.015	2,7	40.161.606	13,3	8.622.828	4,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>57.431.792</b>	<b>100,0</b>	<b>104.678.140</b>	<b>100,0</b>	<b>301.425.556</b>	<b>100,0</b>	<b>175.842.176</b>	<b>100,0</b>

<sup>1</sup> Honako esparru hauek biltzen ditu: ondarea eta arkeologia, liburutegiak, museoak eta artxiboak.

<sup>2</sup> Honako hauek ere biltzen ditu: antzerkia eta dantza, musika, ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura eta edizioa, kultura-ekintza eta bertsolaritza.

2008an, Eusko Jaurlaritzak 30,0 milioi euro bideratu zituen ondarearen azpizistemara, hau da, gastuaren % 52,3, eta arteetara eta kultura-industrietara, berriz, 26,2 milioi euro, hots, gastuaren % 45,7. Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrekin lotutako gastuaren muntak apur bat garrantzi erlatibo txikiagoa du (zehazki, entitate horrek kulturen egindako gastuaren % 2,0).


### 14. irudia. Eusko Jaurlaritzak kulturen egindako gastua, kultura-azpizistemen arabera (euroak eta %-ak). 2008



<sup>1</sup> Honako esparru hauek biltzen ditu: ondarea eta arkeologia, liburutegiak, museoak eta artxiboak.

<sup>2</sup> Honako hauek ere biltzen ditu: antzerkia eta dantza, musika, ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura eta edizioa, kultura-ekintza eta bertsolaritza.


Foru Aldundiek 70,4 milioi euro bideratu zituzten ondarearen azpizistemara, edo beste modu batean esanda, baterako gastuaren bi heren (zehazki, gastuaren % 67,3). Arteekin eta kultura-industriekin lotutako gastuaren bolumena nabarmen txikiagoa izan zen, guztira 31,1 milioi euroko kopurura iritsiz (gastuaren % 29,7). Azkenik, zuzendaritza eta zerbitzu orokorrekin lotutako zeharkako gastuak entitate horiek kulturen egindako gastuaren % 2,7 besterik ez ziren izan.

**15. irudia.** Foru Aldundiek kulturaren egindako gastua, kultura-azpizistemen arabera (euroak eta %-ak). 2008

<sup>1</sup> Honako esparru hauek biltzen ditu: ondarea eta arkeologia, liburutegiak, museoak eta artxiboak.

<sup>2</sup> Honako hauek ere biltzen ditu: antzerkia eta dantza, musika, ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura eta edizioa, kultura-ekintza eta bertsolaritza.

Udalek, ostera, 60,8 milioi euro bideratu zituzten ondarearen azpizistemara, eta arte eta kultura-industrietan egindako gastua, berriz, 163,4 milioi euroko muntara —zehazki, gastuaren % 54,2ra— iritsi zen. Bestalde, oso esanguratsua da jaien eta herri-kulturaren garrantzi erlatiboa, 37,1 milioi euro bideratu baitzituzten azpizistema horretara, % 12,3, hain zuzen. Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrekin lotutako baliabideak horrelako entitateek egindako gastuaren % 13,3 izan ziren.


**16. irudia.** Udalek kulturaren egindako gastua, kultura-azpizistemen arabera (euroak eta %-ak). 2008

<sup>1</sup> Honako esparru hauek biltzen ditu: ondarea eta arkeologia, liburutegiak, museoak eta artxiboak.

<sup>2</sup> Honako hauek ere biltzen ditu: antzerkia eta dantza, musika, ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura eta edizioa, kultura-ekintza eta bertsolaritza.

Erakunde Autonomoek eta Sozietate Publikoek 51,5 milioi euro bideratu zituzten ondarearen sistemara (hau da, kulturaren egindako gastuaren % 29,3), eta arteen eta kultura-industriaren sistemak jasotako baliabideak 109,6 milioi euroko bolumenera iritsi ziren (horiek kulturaren egindako gastuaren % 62,3, hain zuzen). Jaietara eta herri-kulturara, bestalde, horrelako entitateek kulturaren egindako gastuaren % 3,5 zuzendu zuten, eta zuzendaritza eta zerbitzu orokorretara, ostera, % 4,9.

### 17. irudia. Erakunde Autonomoek eta Sozietate Publikoek kulturaren egindako gastua, kultura-azpisisistemaren arabera (euroak eta %-ak). 2008



<sup>1</sup> Honako esparru hauek biltzen ditu: ondarea eta arkeologia, liburutegiak, museoak eta artxiboak.

<sup>2</sup> Honako hauek ere biltzen ditu: antzerkia eta dantza, musika, ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura eta edizioa, kultura-ekintza eta bertsolaritza.


Ondorengo irudian banatuta aurkezten dira datuak, gastuaren kultura-helmuga deskribatzeko xedez, aztertutako kultura-esparru bakoitzari dagokionez.

### 18. irudia. Kulturaren egindako gastua kultura-esparruaren eta entitate motaren arabera (euroak eta %-ak). 2008

Kultura-esparrua	Eusko Jaurlaritza		Foru Aldundiak		Udalak		Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Ondarea eta arkeologia	6.805.500	11,8	23.641.979	22,6	18.566.769	6,2	266.925	0,2
Liburutegiak	2.753.305	4,8	9.224.964	8,8	18.918.001	6,3	5.396.259	3,1
Artxiboak	2.928.079	5,1	4.928.530	4,7	3.536.136	1,2	44.548	0,0
Museoak	17.560.883	30,6	32.611.406	31,2	19.737.910	6,5	45.815.475	26,1
Antzerkia eta dantza	2.765.305	4,8	4.218.013	4,0	24.838.453	8,2	18.621.772	10,6
Musika	11.522.610	20,1	10.978.666	10,5	50.142.813	16,6	59.822.363	34,0
Ikusizko-arteak	657.913	1,1	4.748.846	4,5	5.416.687	1,8	2.451.436	1,4
Zinema eta ikus-entzunezkoak	6.712.955	11,7	1.193.431	1,1	8.091.743	2,7	17.693.883	10,1
Literatura eta edizioa	1.776.120	3,1	610.867	0,6	1.540.751	0,5	297.366	0,2
Kultura-ekintza	2.169.982	3,8	9.190.900	8,8	71.786.024	23,8	10.729.357	6,1
Bertsolaritza	631.734	1,1	190.500	0,2	1.576.141	0,5	2.934	0,0
Jaiak eta herri-kultura	0	0,0	281.023	0,3	37.112.523	12,3	6.077.030	3,5
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	1.147.407	2,0	2.859.015	2,7	40.161.606	13,3	8.622.828	4,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>57.431.792</b>	<b>100,0</b>	<b>104.678.140</b>	<b>100,0</b>	<b>301.425.556</b>	<b>100,0</b>	<b>175.842.176</b>	<b>100,0</b>


Eusko Jaurlaritzari dagokionez, 2008an kulturaren egindako 57,4 milioi euroko gastuaren erdia honako bi esparru hauetara bideratu zituen: 17,6 milioi euro (% 30,6) museoetara, eta 11,5 milioi euro (% 20,1) musikara. Maila txikiagoan, batetik ondarera eta arkeologiara eta bestetik zinemara eta ikus-entzunezkoetara bideratutako gastuaren garrantzi erlatiboa egiaztatzen da (6,8 milioi euro eta 6,7 milioi euro, hurrenez hurren, hau da, Eusko Jaurlaritzak kulturaren egindako gastuaren % 11,8 eta % 11,7).

## 19. irudia. Eusko Jaurlaritzak kulturaren egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (euroak eta %-ak). 2008




Foru Aldundiek, berriz, honako datu hauek dituzte: museoak izan ziren kulturaren egindako gastuaren helmuga-esparru nagusia, 32,6 milioi eurekin, hots, entitate horiek egindako gastuaren ia herena. Ondarera eta arkeologiara zuzendutako kopurua ere nabarmena da, zehazki, 23,6 milioi euro (kulturaren egindako gastuaren % 22,6). Musikak, berriz, gastu-maila txikiagoa du, 11 milioi eurekin, (% 10,5 inguru).

## 20. irudia. Foru Aldundiek kulturaren egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (euroak eta %-ak). 2008




EAEko Udalek bi kultura-esparrutan egin zuten kulturako gasturik handiena: kultura-ekintzan (71,8 milioi euro) eta musikan (50,1 milioi euro). Udalek kulturaren guztira egindako gastuaren barruan, hamar euro bakoitzeko lau bideratu zituzten adierazitako bi esparru horietara. Jaiak eta herri-kultura ditugu udal-esparru nagusietako bat, Udalek kulturaren egindako gastuaren proportzio handia bideratu baitzuten esparru horretara, zehazki, 37,1 milioi euro (%12,3).

## 21. irudia. Udalek kulturaren egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (euroak eta %-ak). 2008



Erakunde Autonomoek eta Sozietate Publikoek kulturaren egindako gastuaren helmuga bi esparrurekin lotuta dago hein handi batean: batetik, musika, 2008an egindako 59,8 milioi euroko gastuarekin (% 34,0), eta bestetik, museoak, 45,8 milioi eurokoarekin, hau da, kulturaren egindako gastuaren % 26,1. Komeni da kontuan izatea musikarekin lotutako instituzio ugariak —hala nola musika-eskolek eta orkestrek— forma juridiko horiek hartzen dituztela, eta baita EAEko museo nagusietako batzuk ere.

## 22. irudia. Erakunde Autonomoek eta Sozietate Publikoek kulturaren egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (euroak eta %-ak). 2008



Udalek kulturaren egindako gastuaren gaineko azterketan— biztanleria kopuruaren arabera— sakonduz gero, zera egiazta dezakegu, udalerrien neurria alde batera utzita, kultura-ekintzaren eta jaien eta herri-kulturaren esparruak direla kulturaren egindako gastuaren helmuga nagusietako batzuk. Haatik, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako Udalek

gastuaren laurdena jaietara bideratu zutela ikus dezakegu, eta zenbat eta handiagoa udalerrietako biztanle kopurua, orduan eta txikiagoa izan ohi da helmuga horri dagokion ehunekoa (txikiagotze hori esanguratsua da).


Horrela, udalerrien neurria handiagotzen den heinean, gastua nolabait dibertsifikatu egiten da normalean, eta horrenbestez, beste zenbait esparruk, esaterako, musikak, eta neurri txikiagoan, liburutegiek, antzerkiak eta dantzak edo museoek, protagonismo handiagoa hartzeko joera dute. Zehazki, honako hau ikus daiteke:

**23. irudia.** Kulturaren egindako gastua, kultura-esparruaren eta udal-neurriaren arabera (euroak eta %-ak). 2008

Kultura-esparrua	<5.000 biztanle		5.000-20.000 biztanle		>20.000 biztanle		Hiriburuak	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Ondarea eta arkeologia	5.751.439	13,0	1.550.949	2,1	550.397	0,9	10.713.984	8,8
Liburutegiak	3.676.445	8,3	5.623.412	7,5	5.502.130	9,0	4.116.014	3,4
Artxiiboak	273.543	0,6	636.990	0,8	1.285.856	2,1	1.339.747	1,1
Museoak	1.659.913	3,8	3.649.165	4,9	3.157.740	5,2	11.271.092	9,3
Antzerkia eta dantza	1.015.349	2,3	5.500.818	7,3	1.909.159	3,1	16.413.127	13,5
Musika	3.600.557	8,1	9.619.383	12,8	12.697.346	20,8	24.225.527	20,0
Ikusizko-arteak	420.813	1,0	1.056.427	1,4	1.116.565	1,8	2.822.882	2,3
Zinema eta ikus-entzunezkoak	408.371	0,9	4.088.838	5,4	1.926.950	3,2	1.667.584	1,4
Literatura eta edizioa	256.538	0,6	414.631	0,6	541.650	0,9	327.932	0,3
Kultura-ekintza	13.602.239	30,8	22.549.708	30,0	19.777.691	32,4	15.856.385	13,1
Bertsolaritza	367.293	0,8	794.041	1,1	338.698	0,6	76.109	0,1
Jaiak eta herri-kultura	10.770.622	24,4	12.088.003	16,1	6.123.363	10,0	8.130.535	6,7
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2.426.167	5,5	7.498.874	10,0	6.057.647	9,9	24.178.918	20,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>44.229.290</b>	<b>100,0</b>	<b>75.071.239</b>	<b>100,0</b>	<b>60.985.192</b>	<b>100,0</b>	<b>121.139.835</b>	<b>100,0</b>


5.000 biztanletik beherako udalerrietako Udaletan aurrekontuaren erdia baino gehiago honako bi kultura-esparru hauetara bideratu zen: batetik, jaiak eta herri-kultura, eta bestetik, kultura-ekintza.

**24. irudia.** 5.000 biztanletik beherako udalerrietako Udalek kulturaren egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (euroak eta %-ak). 2008




5.000-20.000 biztanleko udalerrietako Udaletan, gainera, kultura-ekintzaz (% 30,0) eta jaietz eta herri-kulturaz gain (% 16,1), musikak ere garrantzi handia izan zuen (% 12,8).

**25. irudia.** 5.000-20.000 biztanleko udalerrietako Udalek kulturaren egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (euroak eta %-ak). 2008




20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako Udalen kasuan (hiriburuak kontuan hartu gabe), kulturako gastua kultura-ekintzan eta musikan kontzentratu zen (% 32,4 eta % 20,8, hurrenez hurren). Udal-tipologia horretan, jaietan eta herri-kulturaren egindako gastuak garrantzi erlatibo txikiagoa izan zuen (% 10,0), eta liburutegietan egindakoaren garrantzi erlatiboa ere nabarmendu beharrekoa da (% 9,0).

**26. irudia.** 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako Udalek kulturaren egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (euroak eta %-ak). 2008



Hiriburuen kasuan musikaren garrantzia nabarmendu behar da (% 20,0). Maila txikiagoan, antzerkiaren eta dantzaren (% 13,5), kultura-ekintzaren (% 13,1) eta museoen (% 9,3) kultura-esparruak ditugu.

**27. irudia.** Hiriburuek kulturaren egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (euroak eta %-ak). 2008



### 3. KULTURAKO TRANSFERENTZIEN FLUXUAK EAEN

Aztertutako entitateen maila desberdinen artean egin ohi diren transferentzia-fluxu gurutzatuak identifikatzean datza kulturaren egindako gastua kontsolidatzeko lehen urratsa. Kapitulu hau, beraz, 2. kapituluaren jorratutako gaiaren eta 4.ean jorratutakoaren arteko urrats gisa pentsatuta dago (kulturaren egindako gastuaren gaineko azterketari —likidatutako aurrekontuetan oinarrituz eginikoari— heltzen dio 2. kapituluak, eta EAE osoko gastu kontsolidatuaren azterketari, berriz, 4.ak).


Horretarako, entitate desberdinen diru-sarrerak —2008an egindako kultura-transferentzietatik datozenak— xehatzen dira ondorengo irudian, diru-sarrera horiek kulturako guztizko gastuaren barruan duten garrantzi erlatiboa adieraziz azkeneko zutabean.

**28. irudia.** EAEko entitate publikoen arteko kultura-transferentzietatik datozen diru-sarrerak (euroak eta %-ak). 2008

Entitate mota	Eusko Jaurlaritzatik datozen kultura diru-sarrerak	Foru Aldundietatik datozen kultura diru-sarrerak	Udaletatik datozen kultura diru-sarrerak	Transferentzien bitartez kulturaren egindako diru-sarreraren GUSTIZKOA	Kulturaren egindako guztizko gastua	Diru-sarreraren ehuneko, kulturako guztizko gastuarekiko
<b>Eusko Jaurlaritza</b>	0	0	0	0	57.431.792	0,0
<b>Foru Aldundiak</b>	0	0	0	0	104.678.140	0,0
<b>Udalak</b>	6.269.274	8.054.234	0,0	14.323.508	301.425.557	4,8
<b>Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak</b>	22.923.364	21.841.357	70.134.111	114.898.832	175.842.176	65,3
<b>EAEko GUSTIRA</b>	29.192.638	29.895.591	70.134.111	129.222.340	639.377.665	20,2

Kultura gastuaren transferentzia-fluxuen (EAEko entitate publikoen arteko transferentziak) mapak —29. irudian irudikatzen denak— modu grafikoan islatzen du entitate horien profila (finantzatzailea, mistoa edota gauzatzailea). Horretarako, transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak taldekatu dira, eta beste alde batetik, fluxu horien jatorrizko entitateak eta helmugakoak identifikatu dira, arestian aipatutako fluxu-mapa erdietsiz.

**29. irudia.** EAEko entitate publikoen arteko kultura-transferentzien fluxuak. 2008



29. irudian jasotako azterketa xehatuak agerian uzten duenez, 2008an, finantzatzaile gisako profila zuten entitateak soilik transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak egin zituztenak izan ziren. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek finantzatzaile-eginkizuna izan zuten:

- Eusko Jaurlaritzak 2008an kulturaren egindako gastuaren % 50,8 transferitu zuen EAEn kultura gastua egiten duten beste hainbat entitatetara: Gastuaren % 10,9 Udaletara eta % 39,9 zuzenean Erakunde Autonomoetara eta Sozietate Publikoetara.
- 2008an, Aldundiek kultura gastuaren % 28,6 bideratu zuten beste entitateak finantzatzera: 8,1 milioi euro (hau da, kulturaren egindako gastuaren % 7,7), Udaletara, eta beste 21,8 milioi euro, berriz, Erakunde Autonomoetara eta Sozietate Publikoetara (kultura gastuaren % 20,9, hain zuzen ere).

Horrela, 2008an, Eusko Jaurlaritzak guztira 29,2 milioi euroko munta gastatu zuen Udaletara eta Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoetara egindako transferentzietan; Foru Aldundien kasuan ere antzeko zenbatekoa izan zen, kasu horretan transferentzia horiek 29,9 milioi eurokoak izan baitziren.

Bestalde, Udalek profil mistoa dutela ikus daiteke. Eusko Jaurlaritzaren nahiz Foru Aldundien diru-sarreraren jasotzaileak izateaz gain (gai horretan egindako gastuaren % 4,7 izan ziren jasotako diru-sarrera horiek), entitate horiek, aldi berean, kulturaren egindako gastuaren % 23,2 transferitu zuten Erakunde Autonomoetara eta Sozietate Publikoetara. Azpimarratu beharra dugu, ikerketa honetan aztertutako transferentzien barruan ez direla kontuan hartu, ematen dituzten zerbitzuak ordaintzeko Udalek sistematikoki jasotzen dituztenak.

Zehazki, Udalek kulturaren jaso zituzten transferentzia arruntak eta kapital-transferentzien guztizko zenbatekoa 14,3 milioi euro da; horietako 6,3 milioiren jatorria Eusko Jaurlaritza izan zen, eta gainerako 8,0 milioi euroena, berriz, Foru Aldundiak. Bestelako entitateen finantzatzaile gisa, oso munta handiko transferentziak egin zituzten Udalek Erakunde Autonomoetara eta Sozietate Publikoetara, zehazki, 70,1 milioi eurokoak. Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak gainerako entitateen transferentziak jasotzen dituzten entitateak ditugu; 2008an, azkenean egin zuten gastuaren % 65,3 bide horretatik etorri zitzaizkien, hots, 114,9 milioi euro guztira; horien % 61,0ren iturria Udalak izan ziren, beste % 19,0, ostera, Forua Aldundiak, eta gainerako % 20,0a, azkenik, Eusko Jaurlaritza.

Fluxuen azterketa hori egiteko, Administrazio Publikoek kulturaren egindako diru-sarrera gisa zenbatutako aurrekontu-partida guztien azterketa ere bildu du azterlan honek. Horrelako entitateen egitura organikoa eta bilketa- eta zenbaketa-mekanismoak direla-eta, askotan korapilatsua da kulturako diru-sarrera horiek guztiak identifikatzea eta horiei arrastoa jarraitzea, Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoen kasuan izan ezik, hain zuzen ere, horrelakoek autonomia baitute kudeaketan.

Horrela, arestian adierazitako entitateen autokudeaketa —berezko diru-sarrera pribatuetatik datorrena (tasak eta bestelako diru-sarrerak)— 2008an 40 milioi eurokoa izan zela identifikatu ahal izan da; horrek zera esan nahi du, kulturako autokudeaketa-ratioa bere guztizko aurrekontuaren % 22,7 dela.

## 4. GASTU KONTOLIDATUA EAEn

Entitateen arteko fluxu gurutzatuak identifikatu ondoren lortutako garbiketa-prozesu baten ondorioa dugu kulturako gastu kontsolidatua, 3. kapituluaz azaldu dugun bezala. Horren helburua zera da, aztertutako erakundeek kulturaren egindako gastuaren batuketan aritmetiko hutsak eragingo lukeen partida-bikoizketarik ez gertatzea, hain zuzen. Garbiketa-prozesu horri kontsolidazio deritza eta kultura gastu «gordina» litzateke haren emaitza.

Horrela, azterlan honek azaleratzen duenez, EAEn kulturaren egindako gastuaren barruan horrela lortzen denaren (hemendik aurrera, gastu kontsolidatua) munta 510,2 milioi euro izan zen 2008an, hau da, 234,8 euro biztanle bakoitzeko, eta modu fidagarrian islatzen du EAEko entitate publikoek kulturaren egindako gastu eta inbertsiorako ahalegina.

Kontsolidazio-prozesu hori aplikatuko ez bagenu gero, entitate guztiek (Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Udalek eta Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoek) kulturaren egindako gastua batzean 639,4 milioi euroko munta gordina lortuko genuke, eta munta horren barruan 2008an EAEko entitate publikoen artean egindako transferentzia arruntei eta kapital-transferentziei dagozkien 129,2 milioi euroak bi aldiz batu ditugula esan nahiko luke horrek.

Lortu nahi den helburuaren arabera, kontsolidazio-prozesua bi modu desberdinetan egin daiteke:

- Kontsolidazioa jatorrian: transferentzia-zenbatekoak jatorrizko entitatearekin (finantzatzen duenarekin) lotuta jarraitzen du, eta honenbestez, jasotzaileari ezabatzen zaio.
- Kontsolidazioa helmugan: transferentziaren zenbatekoak transferentzia hori jasotzen duen entitatearekin (onuradunarekin) lotuta jarraitzen du, finantzatzen duenari kenduz.

Lortu nahi den informazio motaren arabera kontsolidazio modu bat edo bestea aukeratu da. Horrela, helburua erakunde-mapa finantzatzailea deskribatzea bada, partida jatorrizko entitatean mantenduko da. Kontsolidazio modu horren emaitza 4.1 kapituluaz aurkezten da.

Aitzitik, xedea gastuaren helmuga xehetasunez ezagutzea bada, hau da, zertan eta nola gastatzen den, partida entitate jasotzailean mantenduko da, izan ere, gastuaren helmugari buruzko xehetasun gehien entitate jasotzaileak eman ditzake (kultura-esparruaren eta kapitulu ekonomikoaren arabera). 4.2 kapituluaren arestian aipatutako moduan tratatutako emaitzak (gastu kontsolidatuarekin loturikoak) aurkeztuko ditugu.

#### 4.1. JATORRIAN KONTOLIDATZEKO PROZESUAREN EMAITZAK

Ondorengo emaitzei esker, kultura gastua finantzatzen duten Administrazio Publikoen panorama garbia izan dezakegu. Entitate bakoitzak EAEn kulturaren egindako gastu kontsolidatuaren barruan (510,2 milioi euro) duen garrantzi erlatiboa aztertzeko, bi eragiketa egin dira, batetik, gastuak fluxuen jatorrizko entitateetan mantentzea, eta bestetik, bestelako entitate publikoetatik jasotako transferentzien diru-sarrerak kentzea.

**30. irudia.** Entitate mota bakoitzak EAEn kulturaren egindako gastu kontsolidatuaren barruan duen garrantzi erlatiboa, barne-transferentzien diru-sarreretan oinarrituz (euroak eta %-ak). 2008

Entitate mota	Kulturaren egindako gastua		Barne-transferentzien diru-sarrerak	Kultura gastu kontsolidatua	
	€	%	€	€	%
Eusko Jaurlaritzak	57.431.792	9,0	0	57.431.792	11,3
Foru Aldundiak	104.678.140	16,4	0	104.678.140	20,5
Udalak	301.425.557	47,1	14.323.508	287.102.048	56,3
Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak	175.842.175	27,5	114.898.834	60.943.343	11,9
<b>EAEn GUZTIRA</b>	<b>639.377.664</b>	<b>100,0</b>	<b>129.222.342</b>	<b>510.155.323</b>	<b>100,0</b>

Oharra: Gastu kontsolidatua entitate motaren arabera kalkulatzeko, entitate finantzatzaileen aurrekontu-partidak mantendu dira.

Finantzatzaile profila duten entitateek (Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek) beren partidak mantentzen dituzte jatorriko garbiketa-prozesu mota hori gauzatu ondoren, eta horregatik, EAEn kontsolidatutako gastuari buruzko garrantzi erlatiboak gora egiten du. Horrela, Eusko Jaurlaritzak 57,4 milioi euroko gastu-partida mantentzen du, hau da, EAEn kulturaren egindako gastu kontsolidatuaren % 11,3 2008an. Foru Aldundiek kulturaren egindako gastua 104,7 milioi euroko zenbatekora iritsi zen, hots, EAEn kulturaren egindako gastu kontsolidatuaren % 20,5.

Udalen kasuan, entitate finantzatzaile izateaz gain, jasotzaileak ere badirenez, kontsolidazio-prozesurako ezinbestean kendu egin behar dira Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldundietatik datozen diru-sarrerak (transferentziak); honenbestez, modu horretan kalkulatu

kulturako gastua 287,1 milioi eurokoa izan zen (2008an EAEn kulturaren egindako gastu bateratuaren % 56,3, hain zuzen ere). Erakunde Autonomoek eta Sozietate Publikoek 114,9 milioi euro jaso zituzten 2008an gainerako entitateetatik, eta kontsolidazio-prozesuan, kopuru hori kultura gastu gordinari (175,8 milioi euro) kendu behar zaio. Horrela, kulturaren egindako gastu kontsolidatua —horrelako entitateekin loturikoa— 60,9 milioi euro izan zen (EAEn kulturaren egindako gastuaren % 11,9, hain zuzen ere).

Kontsolidazio-metodo horri jarraiki, gastuari buruz kapitulu ekonomikoen arabera egindako azterketak, oraingoan ere, aztertutako entitateen profila oso desberdina izan daitekeela uzten du agerian (batetik, EAEn kulturaren egindako gastua finantzatzen duten entitateak, eta bestetik, horrelako gastua zuzenean egiten dutenak). Horrela, 2. kapituluaren deskribatutako profilak daudela egiaztatzen da.

**31. irudia.** EAEn kulturaren egindako gastu kontsolidatuaren banaketa, entitate motaren eta kapitulu ekonomikoaren arabera (euroak eta %-ak). 2008

Entitate mota	I. kap.: Langile gastuak		II. kap.: Ondasun eta zerbitzuetakoko gastu arruntak		III. kap.: Finantza-gastuak		IV. kap.: transf. arruntak		VI. kap.: Inbertsio errealak	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
<b>Eusko Jaurlaritza</b>	2.883.270	3,3	5.675.049	4,4	0	0,0	30.398.317	18,7	1.688.434	1,9
<b>Foru Aldundiak</b>	14.807.581	17,2	13.813.178	10,6	120	0,0	35.395.313	21,8	20.238.750	22,5
<b>Udalak</b>	46.441.169	53,9	80.321.407	58,9	121.750	29,8	95.754.357	59,0	63.960.941	71,1
<b>Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak</b>	21.958.367	25,5	94.807.606	26,1	286.748	70,2	659.488	0,4	4.048.209	4,5
<b>GUZTIRA</b>	86.090.387	100,0	194.617.240	100,0	408.618	100,0	162.207.475	100,0	89.936.334	100,0

Entitate mota	VII. kap.: Kapital-transf.		VIII. kap.: Finantza-aktiboak		IX. kap.: Finantza-pasiboak		GUZTIRA	
	€	%	€	%	€	%	€	%
<b>Eusko Jaurlaritza</b>	12.659.710	37,2	4.127.012	56,0	0,0	0,0	57.431.792	11,3
<b>Foru Aldundiak</b>	17.207.794	12,3	3.215.404	43,7	0,0	0,0	104.678.140	20,5
<b>Udalak</b>	4.182.743	1,5	5.715	0,1	130.777	100,0	287.102.048	56,3
<b>Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak</b>	4.140	0,0	15.264	0,2	0,0	0,0	60.943.343	11,9
<b>GUZTIRA</b>	34.054.387	100,0	7.363.395	100,0	130.777	0,0	510.155.323	100,0

Oharra: Gastu kontsolidatua entitate motaren arabera kalkulatzeko, entitate finantzatzaileen aurrekontu-partidak mantendu dira.

Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari dagokie kapital transferentziaren kapituluarekin lotutako kultura gastuaren zati handi bat (VII. kapituluak). Horrela, 2008an EAEn kontsolidatutako guztizko gastuaren (VII. kapituluakoko gastuak) % 37,2 Eusko Jaurlaritzak egin zuen, eta beste % 50,5, berriz, Foru Aldundiek.

Transferentzia arrunten kasuan berriz, (IV. kapitulua) Udalen garrantzi espezifiko oso nabarmena izan zen, kapitulu horretako guztizko gastuaren hamar euro bakoitzetik sei jarri baitzituzten. Egiaztapen horrek zera irudikatzen du, Udalen aurrekontuetan garrantzi kuantitatibo handia hartu duela horien mende hein handiagoan edo txikiagoan dauden Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoen gastu arrunten finantzaketak. Eusko Jaurlaritzak (% 18,7) eta Foru Aldundiek (% 21,8) garrantzi espezifiko txikiagoa izan zuten EAEn kontsolidatutako gastuaren barruan IV. kapitulu horretan.

Kultura gastua zuzenean egitearekin lotutako kapituluei dagokionez, agerian uzten da Udalek eta Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoek garrantzi erlatibo handia dutela, baina Foru Aldundien garrantzi erlatiboa ere nabarmendu beharrekoa da. Gastuak egiteari buruzko kapitulu horietan, gastua, gauza jakina denez, langile gastuekin (I. kapitulua), ondasunetako eta zerbitzuetako gastu arruntekin (II. kapitulua) eta zuzeneko inbertsiorako gastuekin (VI. kapitulua) lotzen da normalean.

Hori horrela izanik, entitate bakoitzak EAEn kontsolidatutako gastuaren barruan duen garrantzi erlatiboak honako hauek dira:

- EAEn kontsolidatutako gastuari dagokionez, I. kapitulukoaren % 53,9 Udalei zegokien, eta beste % 25,5, ostera, Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoei. Foru Aldundien gastuaren garrantzi erlatiboa % 17,2 da, eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, berriz, % 3,3.
- EAEn kontsolidatutako gastuari dagokionez, II. kapitulukoaren % 58,9 Udalei zegokien, eta beste % 26,1, ostera, Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoei. II. kapitulu horretan, Foru Aldundien gastuaren garrantzi erlatiboa % 10,6 da, eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, berriz, % 4,4.
- EAEn kontsolidatutako gastuari dagokionez, VI. kapitulukoaren % 71,1 Udalei zegokien, eta beste % 4,5, ostera, Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoei. Foru Aldundien gastuaren garrantzi erlatiboa % 22,5 da, eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, berriz, % 1,9.


## 4.2. HELMUGAN KONTOLIDATZEKO PROZESUAREN EMAITZAK

EAE osoan kulturaren egindako gastu kontsolidatuaren emaitzak aurkeztu ditugu kapitulu honetan, betiere gastu hori egin duen entitatean mantenduz, eta hortaz, transferentziak eta diru-laguntzak jatorrian ezabatuz. Era horretan egindako kontsolidazio-prozesuak, kultura gastuaren azken erabilera eta horren banaketa ekonomikoari buruzko xehetasun-maila handiagoa erakusten du.

### 4.2.1. Gastu kontsolidatua kultura-esparruaren arabera

Osotasunezko ikuspegian oinarrituz, azterlan honen bitartez honako datu hauek egiaztatu ahal izan dira: 2008an EAEn kulturaren egindako gastu kontsolidatuaren 510,2 milioi eurotik % 35,3 bideratu zen kultura-ondarearen azpizistemara, zehazki, % 50,3, arte eta kultura-industrien azpizistemara, berriz % 8,4,, jai eta herri-kulturara, eta beste % 6,0, ostera, zuzendaritza eta zerbitzu orokorretara.

**32. irudia.** EAeko Administrazio Publikoek kulturaren egindako gastu kontsolidatua, kultura-azpizistemen arabera (euroak eta %-ak). 2008



<sup>1</sup> Honako esparru hauek biltzen ditu: ondarea eta arkeologia, liburutegiak, museoak eta artxiboak

<sup>2</sup> Honako hauek ere biltzen ditu: antzerkia eta dantza, musika, ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura eta edizioa, kultura-ekintza eta bertsolaritza.


Ikuspuntu fokalizatuagoan oinarrituz, gastu-helmugaren ikuspegitik nabarmenenak honako bi kultura-esparru hauek ditugu: musika eta museoak; izan ere, 2008an EAEn kulturaren egindako gastu kontsolidatuaren herena baino apur bat gehiago bildu zuten aipatutako bi esparru horiek. Zehazki, musikak 95,8 milioi euro jaso zituen, EAEn kulturaren egindako gastuaren % 18,8, hain zuzen. Bestalde, museoetara bideratutako guztizko gastua 91,4 milioi euroko kopurura iritsi zen, hots, EAEn kulturaren egindako gastuaren % 17,9ra.

Maila apalagoan bada ere, kultura-ekintzako gastua nabarmentzen da; kontzeptu horren barruan honako hauen bitartez sustatutako programak biltzen dira: ekipamendu komunitarioak eta soziokulturalak, balio anitzeko kultura-ekipamenduak eta -zerbitzuak, amateurismoa eta kultura-partaidetza. Horrelako jardueren multzora 69,7 milioi euro bideratu ziren (EAEn kulturaren egindako gastuaren % 13,7).

Kultura-esparruen bigarren taldea beste jarduera mota batzuek osatzen dute (kulturako gastuaren % 8 inguru bideratzen da horietara), zehazki, honako hauek:

- Ondarea eta arkeologia: 44,1 milioi euroekin, EAEn kulturean egindako gastu kontsolidatuaren % 8,6 izan zen.
- Antzerkia eta dantza: 43,1 milioi euroekin, EAEn kulturean egindako gastu kontsolidatuaren % 8,4 izan zen.
- Jaiak eta herri-kultura: 42,7 milioi euroekin, EAEn kulturean egindako gastu kontsolidatuaren % 8,4 izan zen.

**33. irudia.** EAeko Administrazio Publikoek kulturean egindako gastu kontsolidatua, kultura-esparruaren arabera (euroak eta %-ak). 2008



Oharra: Kontsolidazio-prozesuaren bitartez, transferentziak eta diru-laguntzak jatorrian kentzeko bidea hartu da, eta horiek gauzatzen diren hurbileneko mailan jaso.

Hurrengo mailan, hirugarren taldea dugu, eta 2008an EAEn kulturean egindako gastu kontsolidatuaren % 7tik beherako gastu-bolumena bildu zuen talde horrek; honako esparru hauek hartzen ditu bere baitan:

- Liburutegiak: 34,2 milioi euro bideratu ziren esparru horretara, eta EAEn kulturean egindako gastu kontsolidatuaren % 6,7 izan zen hori.
- Zinema eta ikus-entzunezkoak: 28,9 milioi euro, hots, % 5,7.
- Ikusizko arteak: 12,4 milioi euro, hau da, guztizkoaren % 2,4.
- Artxiboak: 10,8 milioi euro, guztizkoaren % 2,1.
- Literatura eta Edizioa: 4,2 milioi euro, guztizkoaren % 0,8, hain zuzen.
- Bertsolaritza: 2,4 milioi euro, hots, guztizkoaren % 0,5.

Zeharkako gastuak eta baliabideak finantzatzeko partidekin —zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak deritzenekin— lotutako kultura gastu kontsolidatua ere jaso da; horrelako partidak ezin zaizkio aurreko ezein jarduerari zuzenean egotzi. Zuzendaritza eta zerbitzuen kontzeptua 30,4 milioi eurokoa izan zen EAE osorako.

Beste ikuspegi batean oinarrituz, gastuaren gaineko beste azterketa bat ere jaso daiteke, gastu horrek herritar inbertitzaileari ekarritako ahaleginean oinarritua, hain zuzen ere. Zalantzarik gabe, biztanle bakoitzeko egindako gastuak, zifra horien benetako irismena testuinguruan kokatzeko eta ulertzeko adierazleetako bat izateaz gain, kulturaren esparru desberdinen emaitzak alderatzea ahalbidetzen du. Kontsolidazio-prozesuaren ondoriozko datuekin kalkuluak egin ondoren, 2008an EAeko entitate publikoek kulturaren egindako gastua biztanle bakoitzeko 234,8 euro izan zela adieraz dezakegu. Zifra orokor horren barruan, biztanle bakoitzeko 83,1 euro ondare-azpisistemara bideratu ziren, 118,0 euro, berriz, arte eta industriaren sistemara, beste 19,7 euro jaietara eta herri-kulturara, eta 14,0 euro, azkenik, zuzendaritza eta zerbitzu orokorretara.

Biztanle bakoitzeko ratioak sektoreen arabera kontuan hartuz, gastu handienetik txikienerako sailkapenak modu grafikoan erakusten du sektoreen arteko distantzia; horrela, musikak eta museoek 40 eurotik gorako gastua dute biztanle bakoitzeko, eta beste zenbait sektorek berriz, askoz ere gastu txikiagoa dute, hala nola ikusizko-arteek (5,7 euro), artxiboek (5,0 euro), literaturak eta edizioak (1,9 euro), eta bertsolaritzak (1,1, euro). Azken horren kasuan, kontuan hartu behar da jarduera horren finantzaketa euskara eta hizkuntza-politikako arlo eta sailetatik ere jasotzen dela, eta azterlan honen barnean ez dela jatorri horietako finantzaketa.

Ondare-ondasunen eta -zerbitzuen gaineko datuak egitura sektorial klasikoaren arabera aztertzen diren kasuan ere, liburutegiek eta museoek 2008an biztanle bakoitzeko gastuei dagokienez (15,7 eta 42,1 euro, hurrenez hurren) zituzten aldeek EAeko kultura-politiken eredua irudikatzen dute. Arteek eta industriek ere desberdintasun esanguratsuak dituzte, azterturiko kultura-esparru desberdinek biztanle bakoitzeko duten gastuari dagokionez. Arteen barruan, musika nabarmentzen da (44,1 biztanle bakoitzeko), eta ikusizko arteak, berriz, gastu publikorik txikiena jaso zuten biztanle bakoitzeko (zehazki, 5,7 euro). Haatik, aintzat hartu behar da museoaren esparrua sakonki aztertzeak agerian uzten duela EAeko museo-azpiegitura- eta -zerbitzu nagusietako zenbaitzuk ikusizko arteetara zuzentzen direla, hain zuzen ere.

Industriari gagozkiela, datuek agerian uzten dute argitalpen-industriak izaera pribatua duela funtsean (1,9 euro biztanle bakoitzeko), eta zinemak eta ikus-entzunezkoek duten babesa ez dela oso garrantzitsua (13,3 euro biztanle bakoitzeko).

Esanguratsua da hurbilekoak eta balio anitzekoak izanik partaidetza eta kultura amateur handia duten jardueretarako eta zerbitzuetarako gastua. Kultura-ekintzako gastua eta jai eta herri-kulturakoa batuz, biztanle bakoitzeko gastua 51,8 eurokoa izan da.

**34. irudia.** Kulturaren biztanle bakoitzeko egindako gastu kontsolidatua, kultura-esparruaren arabera (€/biztanle bakoitzeko). 2008



Oharra: kontsolidazio-prozesuaren bitartez, transferentziak eta diru-laguntzak jatorrian kentzeko jarraibidea hartu da, horiek gauzatu diren hurbileneko mailan jasoz.

**35. irudian** aurkezten da komunikabideekin lotutako 2008ko gastu publikoaren garrantzia. Irudi horretan ikus dezakegunez, Eusko Jaurlaritzaren transferentzien bitartez egin zen gastu horren ia % 100. Horrela, EAEn komunikabideetan egindako gastu kontsolidatuaren guztizkoa 179,2 milioi euro izan zen, eta batik bat EITB taldearen aurrekontuari dagokio.

**35. irudia.** Kulturaren egindako gastua, komunikabideetara bideratua, kapitulu ekonomikoaren eta entitate motaren arabera (euroak eta %-ak). 2008

Kapitulu ekonomikoa	Udalak	Foru Aldundiak	Eusko Jaurlaritza	Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak	Guztizko gastua	Gastu kontsolidatua		
	€	€	€	€	€	€	%	
<b>I. kap.:</b> Langile gastuak	126.501	0	150.000	52.594.000	52.870.501	52.870.501	29,5	
<b>II. kap.:</b> Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	868.244	0	0	116.711.454	117.579.698	117.579.698	65,6	
<b>III. kap.:</b> Finantza-gastuak	0	0	0	330.702	330.702	330.702	0,2	
<b>IV. kap.:</b> transf. arruntak	1.012.918	0	129.400.206	2.340	130.415.464	1.015.258	0,6	
<b>VI. kap.:</b> Inbertsio errealak	27.243	0	0	7.375.000	7.402.243	7.402.243	4,1	
<b>VII. kap.:</b> Kapital-transf.	0	0	13.530.445	0	13.530.445	0	0,0	
<b>VIII. kap.:</b> Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0,0	
<b>IX. kap.:</b> Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0,0	
<b>EAEn GUZTIRA</b>	€	2.034.906	0	143.080.651	177.013.496	322.129.053	179.198.402	100,0
	%	0,6	0	44,4	55	100,0	-	-

## 4.2.2. Gastu kontsolidatua kapitulu ekonomikoaren arabera


EAE osorako aurrekontu-kontabilitatearen kapitulu ekonomikoen arabera gastu kontsolidatua xehetasunez aztertuz gero, honako emaitza hauek lortzen ditugu:

- Garrantzi handieneko kapitulua ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntena izan zen (II. kapitulua), 2008an 197,9 milioi euroko kopurura iritsiz, EAEn kulturaren guztira egindako gastu kontsolidatuaren % 38,8ra, hain zuzen ere.
- Langile gastuek (I. kapitulua) 129,7 milioi euroko zenbateko orokorra izan zuten, hau da, guztizkoaren % 25,4.
- Azterturiko administrazioek egindako inbertsio errealek (VI. kapitulua) zenbatekoa 100,7 milioi eurokoa izan zen, hots, guztizkoaren % 19,7.
- Transferentzien kapituluei dagokienez, kontsolidazio-prozesuak egin ondoren (hau da, azterketaren barnean hartutako entitateei barne-transferentziak kendu ondoren), honakoak nabarmendu beharra dago:
  - Transferentzia arruntak (IV. kapitulua) EAEn kulturaren guztizko gastu kontsolidatuaren % 10,6 izan ziren, 54,3 milioi euro, hain zuzen ere.
  - Kapital-transferentziak (VII. kapitulua), ostera, 19,1 milioi eurokoak izan ziren, hots, guztizkoaren % 3,8.

Finantza-aktiboen (VIII. kapitulua) eta finantza-pasiboetara zuzendutako kredituen (IX. kapitulua) erosketak, berriz, aurrekontu-maila txikiagoetan kokatu ziren: guztizkoaren % 1,4 (7,4 milioi euro) aktiboen kasuan, eta % 0,0 (137.302 euro), aldiz, finantza-gastuen kasuan<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Finantza-gastuek, kapitulu honi dagokionez, adierazi beharra dugu ez duela zehatz adierazten kultura-politiken finantzaketa kostua. Entitatekerik gehienetan guztizko aurrekontuaren finantzaketa-iturriak emandako zor publikoarekin loturiko atal bakarrean jaso dira eta. Alegia, ez da agertzen lotuta gastuaren helmuga bakoitzarekin.

### 36. irudia. EAeko Administrazio Publikoek kulturaren egindako gastu kontsolidatua, kapitulu ekonomikoaren arabera (euroak eta %-ak). 2008



Oharra: Kontsolidazio-prozesuaren bitartez, transferentziak eta diru-laguntzak jatorrian kentzeko jarraibidea hartu da, beroriek gauzatzen diren hurbileneko mailan jasoz

#### 4.2.3. Gastu kontsolidatua kapitulu ekonomikoaren eta kultura-esparruaren arabera

Kapitulua amaitzeko, EAEn kulturaren egindako gastu bateratuaren azterketa gurutzatua aurkeztuko dugu, kapitulu ekonomikoaren eta kultura-esparruaren arabera. Azterketa horrek honako egiaztapen hauek aurkeztea ahalbidetzen du:

- II. kapituluak, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei buruzkoa, garrantzitsua da aztertutako 13 kultura-esparruetako 6tan, eta zehazkiago, jaietan eta herri-kulturaren (esparru horretan, guztizko gastu kontsolidatuaren % 70,7ra iritsi zen), antzerkian eta dantzan (% 55,8), ikusizko arteetan (% 49,0), museoetan (% 40,8), zineman eta ikus-entzunezkoetan (% 40,5) eta literaturan eta edizioan (% 40,3).
- I. kapituluak, langile gastuei buruzkoa, garrantzitsuagoa da aztertutako esparruetako lautan, zehazki, ematen den zerbitzua batez ere beren kargurako langileen ardura den esparruetan, esate baterako, liburutegietan (esparru horretan, gastu kontsolidatuaren % 55,4ra iritsi zen) eta artxiboetan (% 44,3); zuzendaritza eta zerbitzu orokorren zeharkako esparruarekin lotutako kudeaketa (% 55,1) eta musika (% 47,5); azken horretan, nabarmena da musika-eskola eta orkestrek duten pertsonal beharra.
- Bestalde, transferentzia arrunten kapituluak (IV. kapituluak) garrantzi handiena literaturan eta edizioan (% 48,3) eta bertsolaritzan (% 39,3) izan zuen; izan ere, aztertutako entitateen zuzeneko esku-hartzea oso txikia da arestian adierazitako esparru horietan, eta horien egitekoa entitate sektorialetarako laguntzak eta diru-laguntzak ematera mugatuta dago.

- Azkenik, inbertsio errealak (VI. kapitulua) ondarrera eta arkeologiara zuzenduta daude nagusiki, kultura-esparru horretan kontsolidatutako kultura gastuaren erdia baino gehiago kapitulu horrekin lotuta agertzen baita (% 52,8). Zerbitzuetarako azpiegiturak eta ekipamenduak behar dituzten beste sektore jakin batzuetan ere inbertsioak egin ziren 2008an, hala nola kultura-ekintzan (% 34,1), zineman eta ikus-entzunezkoetan (% 31,9), museoetan (% 24,5) eta artxiboetan (% 24,0).

Beraz, gastu kontsolidatuaren banaketari —kapitulu ekonomikoaren araberakoari— dagokionez, kultura-esparru bakoitzean desberdintasun esanguratsuak daudela egiazta dezakegu, hein handi batean, aztertutako esparruek izaera desberdinak dituztelako

**37. irudia.** EAEko gastu kontsolidatua, kultura-esparruaren eta kapitulu ekonomikoaren arabera (% horizontala). 2008

Kultura-esparrua	I. kap.	II. kap.	III. kap.	IV. kap.	VI. kap.	VII. kap.	VIII. kap.	IX. kap.	GUZTIRA
Ondarea eta arkeologia	8,4	9,4	0,0	5,0	52,8	24,3	0,0	0,0	100,0
Liburutegiak	55,4	27,2	0,0	0,2	17,2	0,0	0,0	0,0	100,0
Artxiboak	44,3	16,4	0,0	14,4	24,0	1,0	0,0	0,0	100,0
Museoak	16,0	40,8	0,7	5,6	24,5	5,7	6,8	0,0	100,0
Antzerkia eta dantza	13,0	55,8	0,2	14,6	15,5	1,0	0,0	0,0	100,0
Musika	47,5	36,1	0,0	13,0	3,2	0,2	0,0	0,0	100,0
Ikusizko-arteak	10,8	49,0	0,0	25,1	8,1	7,1	0,0	0,0	100,0
Zinema eta ikus-entzunezkoak	9,0	40,5	0,0	8,1	31,9	6,6	3,9	0,0	100,0
Literatura eta edizioa	7,3	40,3	0,0	48,3	2,5	1,6	0,0	0,0	100,0
Kultura-ekintza	19,6	35,0	0,1	10,9	34,1	0,0	0,0	0,1	100,0
Bertsolaritza	2,0	32,2	0,0	39,3	19,8	6,8	0,0	0,0	100,0
Jaiak eta herri-kultura	3,9	70,7	0,0	23,9	1,5	0,0	0,0	0,0	100,0
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	55,1	38,4	0,3	1,3	4,6	0,0	0,1	0,3	100,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>25,4</b>	<b>38,8</b>	<b>0,2</b>	<b>10,6</b>	<b>19,7</b>	<b>3,8</b>	<b>1,4</b>	<b>0,0</b>	<b>100,0</b>

Oharra: Kontsolidazio-prozesuaren bitartez, transferentziak eta diru-laguntzak jatorrian kentzeko jarraibidea hartu da, horiek gauzatzen diren hurbileneko mailan jasoz.

I. kap.: langile gastuak

II. kap.: ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

III. kap.: finantza-gastuak

IV. kap.: transf. arruntak

VI. kap.: inbertsio errealak

VII. kap.: kapital-transf.

VIII. kap.: finantza-aktiboak

IX. kap.: finantza-pasiboak

## 5. ONDORIOAK

Azterlan honetan EAEko kultura-gastuaren dimentsioaren eta banaketaren lehen hurbilketa estatikoa egin dugu. Muga nagusia zera da, ez dagoela denbora-serierik joerak aztertu ahal izateko eta hori, muga ez ezik, baliorik garrantzitsuena ere bada: seriearen hasiera. Hortaz, ondorio gisa, datu esanguratsuenen sintesi bat aurkeztu dugu, hipotesiekin batera, datu horien arteko zenbaiten interpretazio gisa.

### Zifra handiak

2008. urtean, kulturako gastu publiko garbia 510,2 milioi euro izan zen EAEn, hau da, 234,8 euro biztanle bakoitzeko. Datuen nondik norainokoa neurtzeko erreferentzia-puntuak emango dituen bilakaerari buruzko daturik ez dagoenez, erreferentziazko elementu interesgarrienak beste lurraldeetako errealitateekin konparazioak egitea ahalbidetzen dutenak dira, nahiz eta azterlanen metodologiak ez dauden homologatuta<sup>1</sup>. Europara<sup>2</sup> begiratuz gero, EAEko biztanle bakoitzeko ratioa beste hainbat herrialderen ratioaren oso antzekoa da, esate baterako, Suedia (235,9 euro biztanle bakoitzeko 2009an) edo Austria (274 euro biztanle bakoitzeko 2008an). Espainian, biztanle bakoitzeko guztizko gastua 157 euro izan zen 2008<sup>3</sup>. urtean; Katalunian, administrazio kataluniarren gastu publikoa, oro har, 146,1 euro izan zen biztanle bakoitzeko 2007an<sup>4</sup>.

Europar, kultura aurrekontuen bilakaeran etengabeko hazkunde atzeman da azken hamarkadan. Aipatu behar dugu adierazitako datuetan ez dela sumatzen oraindik krisialdi ekonomikoaren eragina; izan ere, nahiz eta krisialdia lehenago hasi, aurrekontu publikoetan egiaz 2010. urtean hasi baitzen eragiten. Hori horrela izanik, Europako herrialde gehienetan, Gobernuen 2009. urteko kultura-aurrekontuetan ez da krisialdiaren eraginik ia sumatu ere egiten eta zenbait kasutan, 2008. urtearekiko hazkunde txikiak ere ikus zitezkeen<sup>5</sup>. EAEn kasuan, 2010. urtea inflexio-puntua izan zen administrazio askorentzat. Hori dela-eta, azterlanaren etorkizuneko edizioetako datuak oso interesgarriak izango dira azken urteotako krisialdi ekonomikoak kultura eremuan izan duen eragina eta garrantzia aztertzeko.

1 Berriz ere esan behar dugu konparatibak kontu handiz egin behar direla, azterlanen aniztasun metodologikoa ahaztu gabe: aztertutako unibertsuaren zabaltasun handiago edo txikiagoaren arabera, aplikatutako definizio eta kontzeptuen arabera, eta datuen tratamendu-metodoaren arabera, lortutako emaitzak ez dira berdinak izango.

2 Iturria: Council of Europe/ERICarts: *Compendium of Cultural Policies and Trends in Europe*.

3 Iturria: Kultura Ministerioa, *Estadística de Financiación y Gasto público en Cultura*. Administrazio mota guztien gastu likidatuaren batuketan oinarrituta kalkulatu da.

4 Iturria: Consell Nacional de la Cultura i de les Arts (2010), *Informe Anual del estado de la Cultura y de las Artes en Cataluña*.

5 Péter Inkei: *The effects of the economic crisis on culture. CultureWatchEurope conference 2010*.

## Aktore publikoen ekarpena

Estatu osoan, kulturen egindako gastu publikoaren % 85 autonomia-erkidegoko eta tokiko administrazioari dagokio, 90eko hamarkadaren erdialdera burutu zen eredu deszentralizatua dela-eta. Azterlan honetan ez da bere osotasunean jaso Estatuak EAEn egin duen kultura-gastua. EAEn erreparatuta, administrazio publikoek kulturara bideratutako 100 euro garbi bakoitzeko 56 Udalenak dira, 20 Foru Aldundienak eta 11 Eusko Jaurlaritzarenak. Gainerakoa bestelako erakundeei (udal, foru aldundi zein autonomia erkidego mailako organismo autonomo edo sozietate publiko forma juridikoa dutenak) 100 euro bakoitzeko 12 dagokie. Erakunde horietako bakoitzaren garrantzi erlatiboa kalkulatzeko garaian, fluxuen jatorrizko erakundeetan mantendu da gastua. Zifren arabera, kultura-politikaren eredu deszentralizatua agerian geratzen da, tokiko erakundeetan metatzen baita EAEn kulturen egindako gastu publikoaren zati handiena.

## Kultura-ahalegina

Kultura-ahaleginaren analisiak, alegia, —kulturen egindako gastuaren garrantzi erlatiboa administrazio publikoaren guztizko aurrekontua kontuan hartuz—, euskal sektore publikoaren eskumenen gaineko hausnarketa zabaltzen du bi norabidetan: alde batetik, kulturarekin zerikusirik ez duten eremuetako betebeharrak, aurrekontuen zati handi-handi bat hipoteka lezakete, bereziki udalerriaz gaindiko erakundeetan; eta bestetik, kultura-eskumenak aldiberekoak izateak, lege-definizio zehatzik ez dagoenez jardun-esparru nahasia eta gainjarria sor lezake zenbaitetan.

Eusko Jaurlaritzaren eskumenean —batik bat, osasunaren eta hezkuntzaren eremuetan, eta herritarren segurtasunarekin, gizarte-babesarekin edo azpiegitura eta garraioekin loturiko gainerakoetan— gastu gatibu garrantzitsuak eragiten dituzte eta aurrekontu-ahaleginaren zatirik handiena jardun-eremu horietara bideratzen da. Horren ondorioz, kulturen egindako gastuaren garrantzi erlatiboa Eusko Jaurlaritzaren guztizko aurrekontuari dagokionez % 0,6 izan zen 2008an eta % 2ra iristen da komunikabideetara bideratutako gastua kontuan hartuz gero. Kultura Ministerioaren datuen arabera<sup>1</sup> 2008. urtean, Espainian, Estatuko administrazio autonomikoak batez beste % 1,21 bideratu zuen kulturara; Katalunian<sup>2</sup> 2007ko datuen arabera, autonomia-erkidegoko administrazioak guztizko aurrekontuaren % 1,5 bideratu zuen.

<sup>1</sup> Kultura Ministerioa, (2008) *Estadística de financiación y gasto en cultura*.

<sup>2</sup> Consell Nacional de la Cultura i de les Arts, (2010) *Informe anual sobre el estado de la Cultura y de las Artes en Cataluña*.

Bestalde, Foru Aldundiek aurrekontu-partida handiak bideratzen dituzte gizarte-politiketara, azpiegituretara eta lurralde-oreka lortzera; beraz, kulturara bideratutako partidak baldintzatuta daude eta, zehazki, 2008an kultura-ahalegina guztizko aurrekontuaren % 3,6 izan zen.

